AURKIBIDEA

HITZAURREA

LABURDURAK

1. GAIA
LAN-ZUZENBIDEAREN NONDIK NORAKOAK

1. Lan-zuzenbidearen kontzeptua, testuingurua eta ezaugarriak
1.1. Lan-zuzenbidearen kontzeptua
1.2. Lan-zuzenbidearen testuinguru historikoa
1.2.1. Lanaren arauketa kapitalismoaren aurreko garaietan
1.2.2. Lan-zuzenbidearen sorrera kapitalismo-garaian
1.2.3. Lan-zuzenbidearen bilakaera Espainian
1.3. Lan-zuzenbidearen ezaugarriak
2. Lan-zuzenbidearen oinarri eta eginkizunak
3. Praktiken atala

2. GAIA
LAN-ZUZENBIDEA. ITURRIEN SISTEMA

1. Iturrien kontzeptua eta zerrenda
1.1. Konstituzioaren lan-edukia
1.2. Nazioarteko arauak
1.3. Barne iturriak
1.3.1. Legeak
1.3.2. Erregelamenduak
1.3.3. Arau kolektiboak
1.3.4. Lan-arloko ohitura
1.3.5. Jurisprudentzia
1.4. Autonomia-erkidegoen ahalmen arauemailea
2. Lan-zuzenbidearen printzipioak
2.1. Gutxieneko arauaren printzipioa
2.2. Araurik mesedegarrienaren printzipioa
2.3. Kontratuko baldintza onuragarriagoaren printzipioa
2.4. Eskubideen gainean xedatu ezintasunaren printzipioa
2.5. Pro operario printzipioa
3. Lan Administrazioa eta Lan Ikuskatzailetza
3.1. Lan Administrazioa
3.2. Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza (LGSI)
4. Praktiken atala

3. GAIA
LAN-KONTRATUA

1. Lan-kontratuaren kontzeptua
2. Lan-kontratuaren ezaugarriak

3. Desberdintasunak antzeko beste kontratu batzuekin
4. Lan-kontratuaren subjektuak
4.1. Langilea
4.2. Enpresaburua
5. Lan-kontratuak egiteko gaitasuna
5.1. Langileak duen gaitasuna kontratua egiteko
5.2. Enpresaburuak duen gaitasuna kontratua egiteko
6. Lan-kontratuaren osagaiak
6.1. Adostasuna
6.2. Objektua
6.3. Karia
7. Lan-kontratuaren forma
8. Lan-kontratuan izan daitezkeen arazoak, langileen benetako lan-enpresaburua nor den zehazteko
8.1. Enpresa-taldeak
8.2. Kontratak eta azpikontratak
8.3. Langileak lagatzea
8.4. Aldi baterako laneko enpresak
8.5. Enpresa-ondorengotza
9. Praktiken atala

4. GAIA
LAN-KONTRATUAREN MODALITATEAK

1. Lan-kontratua egin aurreko egoera: Prestatze-egintzak
2. Probaldia
3. Kontratu-modalitateak bereizteko irizpideak
4. Lan-harreman arruntak
4.1. Iraupen mugagabeko lan-kontratuak
4.1.1. Iraupen mugagabeko lan-kontratu arrunta
4.1.2. Ekintzaileei laguntzeko iraupen mugagabeko lan-kontratua
4.1.3. Enplegua Sustatzeko Programa
4.1.4. Jarraitutasunik gabeko lan-kontratu finkoa eta aldizkako lan-kontratu finkoa
4.2. Aldi baterako lan-kontratuak
4.2.1. Aldi baterako lan-kontratuetatik egiturazko arrazoietan oinarritutakoak
4.3. Abagune-arrazoietan oinarritutako lan-kontratuak
4.3.1. Lanaldi partzialeko lan-kontratua
4.3.2. Errelebuko lan-kontratua
4.4. Heziketarako lan-kontratuak
4.4.1. Prestakuntzarako eta ikaskuntzarako lan-kontratua
4.4.2. Praktikaldiko lan-kontratua
5. Berezitasunak dituzten lan-kontratu arruntak
5.1. Distantziara egindako lana
5.2. Taldeko lan-kontratua, baterako lana eta laguntzaile elkartuaren lan-kontratua
5.2.1. Taldeko lan-kontratua
5.2.2. Baterako lana
5.2.3. Laguntzaile elkartuaren lan-kontratua
5.3. Berezitasunak dituzten beste lan-kontratu batzuk
6. Lan-harreman bereziak
6.1. Goi zuzendaritzako langileen lan-harreman bereziak

6.2. Merkataritzako ordezkarien lan-harreman bereziak
6.3. Abokatuen lan-harreman bereziak
6.4. Kirolari profesionalen lan-harreman bereziak
6.5. Jendaurreko ikuskizunetako artisten lan-harreman bereziak
6.6. Familia-etxeko zerbitzarien lan-harreman bereziak
6.7. Merkatu-gaiak manipulatzeko portu-zerbitzuko langileen lan-harreman bereziak (portuko zamaketariak)
6.8. Beste lan-harreman berezi batzuk
7. Praktiken atala

5. GAIA
LAN-KONTRATUKO SUBJEKTUEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

1. Lan-kontratuko alderdien jardute-esparrua, euren eskubide eta eginbeharrak egikaritzean
1.1. Enpresaburuaren ahalmenak
1.2. Antolamendu juridikoak langileei aitortzen dizkien babes-tresnak
2. Eskubideak eta eginbeharrak ekonomia-arloan
2.1. Enpresaburuaren eginbeharrak
2.2. Langilearen eginbeharrak
3. Lan-arriskuak prebenitzearen inguruko eskubide eta eginbeharrak
3.1. Enpresaburuaren eginbeharrak
3.2. Langilearen eginbeharrak
4. Lanbide-izaerako eskubide eta eginbeharrak
4.1. Enpresaburuaren eginbeharrak
4.2. Langilearen eginbeharrak
5. Etika- edo moral-izaerako eskubide eta betebeharrak
5.1. Enpresaburuaren eginbeharrak
5.2. Langilearen eginbeharrak
6. Praktiken atala

6. GAIA
LAN-DENBORA ETA ATSEDENALDIAK

1. Lanaldia
1.1. Kontzeptua eta mugak
1.2. Benetan lanean egindako denbora
1.3. Lanaldi bereziak
1.4. Lan-ordutegia
2. Aparteko orduak
2.1. Kontzeptua
2.2. Motak
2.3. Aparteko orduak egitearen inguruko bermeak eta mugak
2.4. Aparteko orduak kontrolatzea eta frogatzea
3. Atsedenaldiak
3.1. Asteko atsedena
3.2. Jaiegunak
3.3. Lan-egutegia
3.4. Oporrak
4. Praktiken atala

7. GAIA
LAN-KONTRATUAK IZAN DITZAKEEN GORABEHERAK
1. Lan-kontratua aldaraztea
1.1. Mugigarritasun funtzionala
1.2. Mugigarritasun geografikoa
1.3. Lan-baldintzak funtsean aldaraztea
2. Lan-kontratua geldiaraztea eta etetea
2.1. Lan-kontratua geldiaraztea
2.2. Lan-kontratua etetea
2.2.1. Lan-kontratua etetearen ondorio garrantzitsuenak
2.2.2. Lan-kontratua eteteko arrazoiak
2.3. Eszedentziak
3. Lan-kontratua azkentzea
3.1. Lan-kontratua azkentzearen inguruko ideia nagusiak
3.2. Lan-kontratua azkentzeko arrazoiak
3.3. Kaleratzea kontratua azkentzeko arrazoi gisa
3.3.1. Diziplinako kaleratzea
3.3.2. Kaleratze objektiboa
3.3.3. Kaleratze kolektiboa
3.3.4. Kaleratzea kalifikatzea
4. Praktiken atala

8. GAIA
LAN-HARREMAN KOLEKTIBOAK

1. Langileen ordezkaritza enpresan: ordezkaritza bateratua eta sindikatu-ordezkaritza
1.1. Sarrera
1.2. Ordezkaritza bateratua
1.2.1. Ordezkaritza bateratuaren egitura
1.2.2. Enpresa-batzordearen eskumenak
1.2.3. Langileen ordezkarien bermeak eta erraztasunak
1.2.4. Hauteskunde-prozedura eta agintaldia
1.3. Sindikatu-ordezkaritza
1.4. Langileen ordezkariak prebentzio-arloan
2. Sindikatuak eta enpresaburuen erakundeak
2.1. Sindikatuak
2.1.1. Sindikatu-askatasunaren edukia
2.1.2. Sindikatu-motak
2.2. Enpresaburuen erakundeak
3. Negoziazio kolektiboa
3.1. Negoziazio-unitateak
3.2. Hitzarmen kolektiboak negoziatzeko legitimazioa
3.3. Negoziazio-batzordea
3.4. Negoziazio-prozedura
4. Hitzarmen kolektiboa
4.1. Hitzarmen kolektiboaren edukia
4.2. Hitzarmen kolektiboaren indarraldia
4.3. Hitzarmen kolektiboa aplikatzea eta interpretatzea

4.4. Hitzarmen kolektiboari atxikitzea eta hitzarmen kolektiboa hedatzea
5. Praktiken atala

---

## HITZAURREA

Irakurle hori, eskuartean duzu «Lan-zuzenbidea» eskuliburua. Eskuliburu honek bere baitara biltzen ditu «Lan-zuzenbidea I» (2014) eta «Lan-zuzenbidea II» (2015) eskuliburuen edukia.

Izan ere, haien edukiak berrikusi eta eguneratu behar izan dira, azken aldi honetan gauzatu diren aldarazpenak kontuan hartzeko. Bada, aldarazpenok eragin dituzten arauen artean, hurrengoak dira nabarmendu beharrekoak: maiatzaren 29ko 417/2015 Errege-dekretua, aldi baterako laneko enpresen Erregelamendua onestekoa; uztailaren 9ko 17/2015 Legea, Babes Zibileko Sistema Nazionalari buruzkoa; uztailaren 21eko 23/2015 Legea, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Sistema Antolatzekoa; uztailaren 24ko 24/2015 Legea, Patenteei buruzkoa; irailaren 9ko 31/2015 Legea, autoenpleguko arautegia eraldatu eta eguneratzekoa eta lan autonomoa nahiz Gizarte Ekonomia suspertu eta bultzatzeko baliabideak onartzekoa; urriaren 14ko 44/2015 Legea, Laneko eta Partaidetzen bidezko Sozietateei buruzkoa; urriaren 23ko 2/2015 Legegintzazko Errege Dekretua, Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onestekoa; urriaren 23ko 3/2015 Legegintzazko Errege Dekretua, Enpleguari buruzko Legearen testu bategina onestekoa; urriaren 30eko 5/2015 Legegintzazko Errege Dekretua, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onestekoa; urriaren 30eko 8/2015 Legegintzazko Errege Dekretua, Gizarte Segurantzako Lege Orokorraren testu bategina onestekoa.

Modu honetara, Zuzenbidea euskalduntzeko bidean, lan-zuzenbideari begira aurretik emandako urratsek badute jarraipena. Bestela esanda, itzulpenetik sormen-lanerako jauzia eman arren ere, beharrezkoa da sortutakoa, hala behar denean, berrikusi eta eguneratzea, eta, hain zuzen, horretara dator eskuliburu hau. Hala behar dute gure ikasleek eta, oro har, lan-zuzenbidera euskaraz gerturatu nahi duten guztiek ere.

Edukiari erreparatuz, zortzi gaitan antolatuta, hurrengoak jaso dira: lan-zuzen-bidearen nondik norakoak, iturrien sistema, lan-kontratua, lan-kontratuaren modalitateak, lan-kontratuko subjektuen eskubide eta betebeharrak, lan-den-bora eta atsedenaldiak, lan-kontratuak izan ditzakeen gorabeherak eta lan-harre-man kolektiboak. Gai bakoitza praktiken atalarekin bukatzen da. Horrek ikasi beharrekoa behar bezala berrikustea ahalbidetzen du, hala banakako ikasketaren bidez, nola gelan gauzatutako partaidetza aktiboko saioen bidez.

Bestalde, gai guztiak antolatzeko orduan, kontuan hartu dira Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruak berarekin dakartzan eskakizunak. Halatan, ikasleek kasuan kasuko gaitasun orokorrak eta bereziak eskuratu behar dituzte, jakitate teorikoak horien araberako praktikei lotuz. Egin-eginean ere, ikaslea da ikasketa-prozesuko protagonista nagusi, bere parte-hartzea, dedikazioa eta konpromisoa ezinbesteko baitira. Azken buruan, gaur egungo ikasketa-planek eskatzen duten diziplinaren eta metodologiaren ondorio da hori. Izan ere, irakasgai jakin bati eratxikitako kredituek irakasgai horren

ordu-kopuruaren berri ematen dute, orduok banatuz ikasleek, gelan nahiz gelatik kanpo, gauzatu beharreko zeregin desberdinen arabera.

Gelatik kanpo gauzatu beharreko zereginetara biltzen dira, esaterako, banakako ikasketa, jarduera praktikoak eta tutoretzak. Are gehiago, gelan bertan partaidetza aktiborako eta jarduera praktikoak egin eta azaltzeko denbora aurreikusi behar da.

Labur-zurrean esanda, ezinbestekoa da denbora optimizatzea. Horretarako ikasleei material didaktikoak eskaini behar zaizkie, lan-zuzenbidearen erakunde nagusiak albait arinen eta erraz ikasteko, kasuan kasuko kontzeptualizazioaren bidez, eta ikasitakoa praktikan jartzeko.

Helburu hori oinarri, eskuartean duzun eskuliburuan lan-zuzenbideko erakunde garrantzitsuenak aztertzeaz gain, lantzean-lantzean, horien inguruko jurisprudentzia- eta doktrina-aipamenak jaso dira. Orobat, egokitzat jo denean, azalpenekin batera adibideak jarri dira edota zenbait web-orrialderen berri eman da, kasuan kasuko gaian sakondu ahal izateko. Azalpenei erreparatuz gero, sarritan informazio osagarria eman da, letra-tamaina txikiagoarekin idatzitako «alerta» antzekoak baliatuta.

Hauxe gure asmoa: euskaldun garen heinean, euskara eta lan-zuzenbidea uztartzea.

Bukatzeko argi utzi behar da eskuliburu honek ez duela inolako diru-lagun-tzarik edo babesik jaso.

Francisco Javier Arrieta Idiakez

Ondarroa, 2017ko urtarrila